Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko maiatzaren 23a, osteguna — 96 — Jueves, a 23 de mayo de 2019

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ZUMAIAKO UDALA

*Iragarkia*

Alkateordeak, 2019ko maiatzaren 16ko 484/2019ko Alkate erabakiz ondorengo deialdia onartu du:

Gizarte zerbitzuei dagozkien gaien inguruan lan egiten duten elkarteei diruz laguntzeko 2019 urteko deialdia.

*1. Xedea:*

Gizarte zerbitzuei dagozkien gaien inguruan lan egiten duten elkarteen jarduerak egiteko diru-laguntzak ematea eta Zumaian edo Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokaturik dauden eta gizarte zerbitzuen eremuan espezifikoki diharduten elkarteei, beraien funtzionamendu gastuak ere diruz laguntzea du xede.

*2. Eskabideak aurkezteko epea:*

Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik 15 egun natural arte.

*3. Eskabideak eta aurkezteko beharrezko agiriak:*

Diru-laguntza eskaerak Zumaiako Udaleko Gizarte Zerbitzu edo erregistro nagusian aurkez daitezke bulego orduetan edo ondorengo helbidean https://uzt.Gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/SolicitudDetalle.aspx?id=GDDB&idAyto=81&idioma=eu-ES deialdi honi eransten zaion 1. eranskina aurkeztuz, Alkatearen izenean. Inprimakiari ondorengo agiriak erantsiko zaizkio:

— Diru-laguntzaren eskaera normalizatua, I eta II eranskinean ematen diren modukoak, behar bezala beteta.

a) Diru-laguntza eskatu den jarduera zehatzaren memoria.

b) Elkarte eskatzailearen ordezkari edo arduradun den pertsonaren NANaren fotokopia.

c) Identifikazio fiskaleko kodea adierazten duena giriaren fotokopia.

d) Eusko Jaurlaritzako elkarteen eta entitateen erregistroko inskripzio-ziurtagiria.

e) Hirugarrenaren ezagupene- rako datuak (IV eranskina).

f) Zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak egunean betetzen direla kreditatzen duen agiria, eskaera orrian baimenik ematen ez bazaio Udalari halako datuak zuzenean lortzeko.

Udaleko elkarteen erregistroan izena eman duten elkarteek ez dituzte aurkeztu beharko b), c), d) eta e) puntuetan eskatzen diren agiriak.

— Instituzio eta erakundeetan egin diren diru-laguntza eskaerei buruzko adierazpena edo, halakorik bada, jaso diren diru-laguntzena. (III eranskina).

## AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA

*Anuncio*

El 16 de mayo de 2019, el Alcalde por Decreto de Alcaldía 484/2019 ha adoptado la siguiente resolución:

Convocatoria del año 2019 para la concesión de subvenciones a las asociaciones que desarrollan sus actividades en el ámbito de los servicios sociales.

*1. Objeto:*

Es objeto de las presentes bases, la concesión de subvenciones a las asociaciones que desarrollan sus actividades en el ámbito de los servicios sociales, así como la concesión de subvenciones destinadas a cubrir gastos de mantenimiento de funcionamiento ordinario de aquellas asociaciones ubicadas en Zumaia o el Territorio Histórico de Gipuzkoa, cuya finalidad está directamente relacionada con las funciones de los Servicios Sociales.

*2. Plazo de presentación de solicitudes:*

Desde el día siguiente a la publicación del presente anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, hasta 15 días naturales después de su publicación.

*3. Solicitudes y documentación a presentar:*

Las solicitudes de subvención podrán presentarse, en horario de oficina, en el Departamento de Servicios Sociales o registro general del Ayuntamiento de Zumaia, mediante la presentación del anexo 1 que se adjunta a la presente dirigida al Alcalde o a través del siguiente link https://uzt.Gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/SolicitudDetalle.aspx?id=GDDB&idAyto=81&idioma=es-ES Al impreso se acompañarán los siguientes documentos:

— Solicitud de subvención normalizada, según documentos que se adjunta como anexo I y II, debidamente cumplimentada.

a) Memoria de la actividad concreta para la que se solicita la subvención.

b) Fotocopia del D.N.I. de la persona o representante o responsable de la entidad solicitante.

c) Fotocopia del documento del Código de Identificación Fiscal.

d) Certificado de la inscripción en el registro de asociaciones y entidades del Gobierno Vasco.

e) Certificado bancario de alta de tercero (anexo IV).

f) Si no se autoriza al Ayuntamiento en la solicitud de subvención para recabar directamente dichos datos, documento acreditativo de estar al corriente de las obligaciones, tributarias y de seguridad social.

Todas aquellas asociaciones que estén inscritas en el registro de asociaciones del Ayuntamiento de Zumaia, no tendrán que presentar los documentos que se mencionan en los puntos b), c), d) y e).

— Declaración sobre solicitudes de subvención realizadas ante instituciones, organismos, o en su caso, de las que estuvieran otorgadas. (Anexo III).

EK\CV GAO-I-2019-03283

— Zinpeko aitorpena, diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzearekin zigortuta ez dagoela edo horretarako gaitasunik ez duela esanez legezko debekuan sartuta ez dagoela azalduko duena. Debeku horien barne izango da sexuagatiko diskriminazioaren ondorioz jasotako debekua, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, amaierako seigarren xedapenak arautzen duen ildotik. (IV eranskina).

— Elkarte edo entitatearen urteko gastuen eta diru-sarreren aurrekontua.

— Diruz-laguntzeko aurkezten den programari dagokion gastuen eta diru-sarreren aurrekontua.

— Hizkuntzaren erabilera (V. eranskina).

4. *Aurrekontuko diru-hornidura:*

Aipatutako diru-laguntzarako gehienez 14.928 € banatuko dira oinarri espezifikoak diotena betetzen duten eskaintzen artean.

Horretarako 2019ko aurrekontutik ondorengo partida erabiliko da:

1 0500.481.231.00.02 2019 (290).

5. *Diru-laguntzaren ordainketa:*

Diru-laguntzaren zenbateko osoak ezingo du izan, inoiz ere, bera bakarrik edo beste herri-administrazio eta erakunde publiko edo pribatuek emandako diru-laguntzarekin batuta, onuradunak egin behar duen jardueraren kostuarena baino handiagoa.

6. *Diruz lagun daitezkeen gastuak:*

Diruz lagun daitezkeen gastuak dira diruz laguntzen diren jarduerak egiteko egin behar direnak, baldin eta oinarri hauetan ezarritako epean egiten badira. Alderdi horri dagokionez, beti bete beharko da Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 31. artikulua (azaroaren 17ko 38/2003 Legea).

7. *Diru-laguntzaren ordainketa:*

Diru-laguntza emango dela jakinarazi eta gero, onartutako zenbatekoaren % 60 ordainduko da. 2020ko urtarrilaren 15 baino lehen aurkeztu behar diren ekintzen memoria eta frogagiriak egiaztatu ondoren, gainerako % 40 ordainduko da.

Halaber, ekonomia-ekitaldi baten barruan emango diren laguntzen bolumen osoak ez du izendatutako dirua gaindituko.

Ordaindu beharreko kantitatea handiagoa bada aurrekontuan izendatutako kopurua baino, orduan, banaketa proportzionala egingo da.

Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, diru-laguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

8. *Diru-laguntzaren justifikazioa:*

Diru-laguntza jaso duen entitateak diru-laguntzaren zenbateko osoaren justifikazioa aurkeztu behar du.

Horretarako, honako agiriak aurkeztu beharko dituzte:

— Egindako eta diruz lagundutako ekintzak azaltzeko memoria.

— Ekintza horien agiri grafikoak edo ikus-entzunezkoak (argazkiak, bideoak, DVDak, txartelak, programak eta abar).

— Declaración jurada de no estar sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni de hallarse incursa en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final Sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. (Anexo IV).

— Presupuesto anual de gastos e ingresos de la entidad o asociación.

— Presupuesto de gastos e ingresos del programa para el que solicita la subvención.

— Uso linguistico (anexo V).

4. *Dotación presupuestaria:*

Para la subvención mencionada se destinarán como máximo 14.928 € que se distribuirán entre las solicitudes que cumplan con lo dispuesto en las bases específicas.

Con este fin del presupuesto del 2019 se utilizará la siguiente partida:

1 0500.481.231.00.02 2019 (290).

5. *Cuantía de la subvención:*

El importe total de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que aisladamente, o en concurrencia con subvenciones o ayudas de otras administraciones públicas, o de otros entes públicos o privados, supere el coste de la actividad a desarrollar por la persona beneficiaria.

6. *Gastos subvencionables:*

Serán subvencionables todos aquellos gastos necesarios para la realización de las actividades objeto de esta subvención, siempre y cuando hayan sido efectuados dentro del plazo comprendido en las bases de esta convocatoria. En todo lo referente a este asunto, será de obligado cumplimiento lo establecido en el artículo 31 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

7. *Abono de la subvención:*

Una vez comunicada la concesión de la subvención, se abonará el 60 % de la cantidad concedida. El resto se abonará una vez que se presenten la memoria de las actividades y comprobados los justificantes que se presentarán antes del 15 de enero de 2020.

Asimismo, el volumen total de las ayudas que se concederán en un ejercicio económico, no superará la cantidad consignada.

Cuando la cantidad a pagar sea superior a la dotación presupuestaria total consignada en el presupuesto, se procederá al prorrateo proporcional a la cantidad que corresponda a cada solicitante.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado o disminuido, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.

8. *Justificación de la subvención:*

La entidad beneficiaria deberá presentar la justificación total del importe de la subvención.

Para ello deberá presentar:

— Memoria explicativa de las actividades realizadas y subvencionadas.

— Documentación gráfica o audiovisual de la realización de las mismas. (fotografías, vídeos, DVD, carteles, programas, etc.).

EK\CV GAO-I-2019-03283

— Proiektuaren eskaeraren araberako memoria ekonomiko justifikatzailea, egindako gastuen jatorrizko ziurtagiriekin (fakturak). Aurkeztutako egiaztagirien (fakturen) zerrenda zenbakitua. Diru-sarreren eta gastuen balantze ekonomikoa.

— Diruz-lagundu den jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo diru-laguntzen zerrenda xehatua, haien zenbatekoak eta jatorria adieraziz.

Zumaia, 2019ko maiatzaren 17a.—Alkatea. (3283)

— Memoria económica justificativa de acuerdo con la solicitud del proyecto, con justificantes originales del gasto realizado (facturas) Relación numerada de los justificantes presentados. Liquidación económica de ingresos y gastos.

— Relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.

Zumaia, a 17 de mayo de 2019.—El alcalde. (3283)